

Jose Ignazio Ansorena

Himnoak: ederra eta beharra

Galiziako Himnoaren inguruko eztabaida sortu da uda honetan, bertakoek ezagutu beharko luketen edo ez, zein neurritaraino erakutsi edo behartu eskoletan horretara eta abar. Egun batzuetan, pil-pilean egon da gaia, hitz-ernegatua lanbide dutenen artean, irratian eta telebistetan bereziki.

Gehienetan iritzi bera entzun da: himnoak ez zaizkie gustatzen *guru* aburu emaile gehientsueni. Arazoak besterik ez omen dituzte ekartzen. Hobe litzateke himnorik gabeko munduan bizitzea.

Benetako botereak, aldiz, ez du astirik galtzen eztabaida antzuetan. Estatu guztiek dute himnoa. Futbol talde handi guztiek ere badute.

* * *

Himnoak ederrak dira eta beharrezkoak. Den-denek dute *edertasun funtzionala*: une batzuetan ederrak iruditzen zaizkigu, geure barruei poza, alegantzia eta harrotasuna emateko balio digutelako.

Adiskide batek sarri errepikatzen dit mezetara igandero joango litzatekeela baldin eta jaiero *Agur Jesusen Ama* edo antzeko abesti asebetegarriak kantatuko balira. Bizitzan emozioak behar ditugula zoriontsu izateko, emozio eraginkorrak, aho-betez, arnas osoz, taldean, gora begira kantatzean lortzen diren tankerakoak.

Kritiko aztertzaile zorrotz ustekoek himnoei beren berritasun estilistiko eza leporatzen diete: irudi eta sinbolo topikoak erabiltzen dituztela, Himnoak *masarako* direla... Norbanakoak himnoetatik urruti sentitu behar omen du, bere banakotasuna babestu nahi badu. Eta boteretsuen itzalean bizi diren adituek, ohi bezala, tranpa egiten dute. Pobreen himnoei barre egiten diete, zein simple eta, noski, *pobre* diren.

* * *

Jon Juaristi, gai honetan aditua eta bereziki aritua, ederki olatzen da *Eusko Gudariak* himnoaren itzulpena egiterakoan bere liburuetako batean. Ez du, ordea, aipatzen Espainiako himno militar gehien topiko narda-



ALBERTO ELOSEGI

garrien pilaketa: “*Ardor guerrero vibra en nuestras voces...; Artilleros... al oír del cañón el estampido, nos haga su sonido enardecer...; Caballero español, centauro legendario, jinete valeroso y temerario; Mi divisa no conoce el miedo, mi destino tan solo es sufrir, mi bandera luchar con denuedo hasta conseguir vencer o morir...*”

Demagogia joko zaharra: inoren edo ezereen karikatuta aukeratzea barregarria dela esan ahal izateko. Egia da *Eusko gudariak* himno militarra dela eta topiko guztiak erabiltzen dituela. Baina, aitortu behar zaio ederki konbinatzen dituela denak testu labur eta eraginkorrean. Himnoa den aldetik, benetan lortua dago eta, behinik behin, ez da plastada luze aspergarria.

Bestetik pertsonak ez gara indibiduo hutsak. Denok dugu gugan hainbat taldeekiko lotura (familia, adiskideak, auzokiak, kirol-kideak...). Horiek guztiak ere gure izaeraren osagarriak dira.

Arazoa da himnoak noiz eta nola erabili behar diren. Eta noski zer adierazten duten. Ideia eta helburu maltzurak dituztenak ere badira. Une egozia aukeratuz gero, himnoak bere goia jotzen du. Baina maizegi edo tenore desegokian erabilia, irrigarri edo beldurgarri gertatzen da.

* * *

Zoriontsua himno askorekin birloratzen den pertsona, bere sentimenduak alor askotan eta beste pertsona askorekin batera zabalitzen direlako.

Zoriontsua maite dituen himnoak lotsarik gabe aldarrika ditzakeena, emozioak eta ideiak bateratsuak dituelako.

Zoriontsua beren himno kuttunetan absurduari zirrikitua uzten diona, konturatu delako arrazoiak ez duela dena betetzen bizitzan.

Zoriontsua besteen himnoak entzutean, ez gorrotorik, ez inbidiarik, ez lerre gaiztorik duena, begirune eta senidetasuna baizik, humanitate osoarekin bat egiten ikasi duelako. ■